

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

**Otsailaren 22ko 091/2023, ebazpenaren laburpena, euskara ikasteko beken deialdia. 2022/2023 ikasturtea**

BDNS (Identif.): 676652

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/676652>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gov.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntzen onuradunak izango dira euskalduntze prozesuan sartuta dauden pertsona guztiak, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude.

#### **Bigarrena. Dirulaguntza ematearen xedea**

2022/2023 ikasturtean euskara ikastaroak burutzearren dagozkien zenbatekoei zati batean finantzatzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak**

Udalbatzak, 2022ko abenduaren 26an egindako batzarrean, euskara bekak emateko araupetuko duten oinarriak onartu zituen.

Dirulaguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: [www.barrundia.eus](http://www.barrundia.eus).

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Kopuru osoa: 4.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 335.480.001.

#### **Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea**

Dokumentazioa aurkezteko epea 2023ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2023ko otsailaren 28a

*Alkate-udalburua*  
**IGOR MEDINA ISASA**